



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 4a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Los Arcosko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Los Arcosko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Los Arcosko Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Los Arcosko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Helburua (4. or.).</p> <p>III. Norainokoa (5. or.).</p> <p>IV. Udalaren kontu orokorrari buruzko iritzia (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. 2014ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Udalaren 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (9. or.).</p> | <p>V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. 2014ko aurrekontu-emaizta (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Egoera-balantzea 2014ko abenduaren 31n (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2014an (13. or.).</p> <p>VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Alderdi orokorrak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Udaleko langile-gastuak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Transferentzia arruntengatiko gastuak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Inbertsioak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. Aurrekontuz kanpoko eragiketak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.8. Diruzaintza (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.9. Ixkitako aurrekontuak (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.10. Udalaren egoeraren balantzea eta emaitzen kontua (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.11. Gorabeherak (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.12. Hirigintza (27. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (28. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (28. or.).</p> |
|---|--|

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran eta Geroa Bai parlamentu-taldeak hala eskatuta, Nafarroako Kontuen Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezan Los Arcosko Udalarari buruz.

Kontuen Ganberak bere jarduketa programan sartu zuen fiskalizazio hori.

Azterketa-lana 2015eko azaroan eta abenduan egin da.

Los Arcos erdialdeko udalerrri bat da, Lizarrako Merindadean dagoena eta inguruko 12 udalerriren eskualdeko buru dena. 54 km²-ko azalera du eta 1.168 biztanle zeuzkan 2014ko urtarrilaren 1ean.

Donejakue Bidearekin lotutako ondare historiko garrantzitsua dauka.

Honako hauek dira 2014ko abenduaren 31ko zenbateko ekonomiko aipagarriak:

Entitatea	Kopurua		Langileak, 2014-12-31
	Gastuak	Diru-sarrerak	
Los Arcosko Udala	1.965.578	2.155.721	9

Udalak ez du inongo erakunde autonomorik, eta ez du parte hartzen inongo merkataritza-sozietatetan. Bere jarduera garatzeko eta bere zerbitzuak emateko, honako entitate hauetako kidea da:

- Jurramendiko Mankomunitatea: uraren ziklo integralarekin eta hiri hondakinekin lotutako zerbitzuak; etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa eta hirigintza zerbitzua.
- Lizarrako eskualdearen garapenerako TEDER elkarte.
- Los Arcosko eskualdeko oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea.
- Nafarroako Antzokien Sarea.

Laburpen-taula honetan bai Udalak ematen dituen zerbitzuak, bai haiek emateko modua agertzen dira.

Zerbitzua	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X		
Udal albienteak	X		
Hilerria	X		
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X		
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean			X
Hirigintza		X	
Lorategiak			X
Hiri hondakinak		X	
Ur-hornidura		X	
Liburutegia	X		
Ludoteka	X		
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X		
Argiteria publikoaren mantentzea	X		
Kale garbiketa	X		
Udal eraikinen garbiketa	X		
Ikastetxearen garbiketa			X
Kirolak	X		
Kirol instalazioak	X		
Kultura	X		
Gazteria	X		
Ingurumena	X		
Babestutako enplegu soziala	X		
Enpleguaren sustapena	X		
Diru-bilketa exekutiboa			X

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2014ko urtarrilaren 9an, hasierako onespena eman zitzaion 2014rako aurrekontuari, legezko izapi-deak bete ondoren. Aurrekontuaren behin betiko onespena 2014ko abuztuaren 7ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Kontu orokorra 2015eko maiatzaren 5eko Osoko Bilkuran onetsi zen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren eta hirugarren atalean ageri dira txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren Kontu Orokorrari buruz dugun iritzia agertzen dugu; bosgarrenean, berriz, kontu horien laburpen bat jaso dugu. Seigarrenean, Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak bil-tzen dira.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta Parlamentuaren eskaria kontuan hartuta, Los Arcosko Udala-ren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Los Arcosko Udalaren 2014ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformeta-sunez aplikatu diren.

b) Zenbateraino bete duen Los Arcosko Udalak izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.

c) Los Arcosko Udalaren egoera finantzarioa 2014ko abenduaren 31n.

d) 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen bete-tzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekono-miko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganberak Los Arcosko Udaleko kontu orokorren fiskalizazioa egin du, puntu hauek kontuan hartuz, besteak beste:

- Entitatearen kontu orokorra.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Hona hemen Udalaren kontu orokorrean ageri diren finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.
- Egoera-balantzea eta Galeren eta Irabazien Kontua.

Udalak aplikatutako kontabilitate-araubidea irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean ezarrita dago.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarrizko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertze teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia eta aplikatutako oinarrizko prozedura administratiboak aztertu dira; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak ere ebaluatu dira.

IV. UDALAREN KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA.

Los Arcosko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizatorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatakoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira,

horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratorzen da.

IV.1. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA

- 2014an, 21.143 euro gastutzat aitortu ziren –aurreko ekitaldian egindako bi obrari dagozkie– eta obra bat partzialki egin zen –21.048 euroko zenbatekoa–, baina 2015ean aitortu zen gastu gisa.

- Diruzaintzaren egoera-orrian 2014ko abenduaren 31ko kontabilitate-izakin gisa aurkezten da 92.715 euroko saldo bat, zeina ez baitagokie diruzaintzako funts likidoi, baizik eta eskudiruaren mugimendurik ez dakarten eragiketei; esate baterako, jasotako abalak, aurrekontuz kanpoko zor gisa aitortuak. Halaber, 2014ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinaren egoera-orriko aurrekontuz kanpoko gastuengatik ordaintzeko dauden funts likidoen eta betebeharren atalek diru gehiago agertzen dute zenbateko horretan.

- 2014ko abenduaren 31ko zorraren egoera-orriak ez du hartzen 2013an itundutako banku-mailegu bat, zeinaren saldoa 40.522 eurokoa baitzen aipatutako egunean. 2014ko diruzaintza-gerakinaren egoera-orriko aurrekontuz kanpoko gastuengatik ordaintzeko zeuden betebeharren gisara jasota zegoen; horrenbestez, saldo hori behar baino handiagoa da kopuru horren zenbatekoan. 2014ko abenduaren 31ko balantzean ez da finantza-zorra (zor bizia) jaso.

- Ondasunen inbentarioa 1988koa da, eta urteko aurrekontu-betetzeko mugimenduekin gaurkotzen da, aldeztatik eskualdatze automatiko horien analisirik eta arazketarik egin gabe. Hortaz, ezinezkoa izan da Udalaren ibilgetuaren kontabilitate saldoa –8.047.843 eurokoa, 2014ko abenduaren 31n– zentzuzkoa dela egiaztatzea.

- Ondarearen eta erreserben kontuak urteko aurrekontu-betetzearen mugimenduekin gaurkotzen dira, banku-zorrek lotutako eragiketak eta kapital-transferentziak sartuta, intsuldaketa automatiko horiek aldeztatik aztertu eta garbitu gabe. Hortaz, ezinezkoa izan da Udalaren kontu horien kontabilitate-saldoaren ebidentziarik lortu. 2014ko abenduaren 31n saldo hori 8.115.331 eurokoa da gutzira.

FINANTZEI BURUZKO IRTITZIA

“Iritziaren oinarria” lerrokadan azaldutako salbuespenen eraginak alde batera utzita, Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du, alderdi aipagarri guztietan, entitatearen 2014ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomikoei eta aurrekontukoei buruz ere, finantza-informazioa dela eta aplikatzekoa den arau-esparruari jarraituz eta, batez ere, hartan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideei jarraituz.

AZPIMARRA-LERROKADA

“Kale Nagusia zolatzea” obra, Udaletik jakinarazi digutenez, gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenaren arabera kontabilizatu da, Toki Administrazioi Departamentuak emandako diru-laguntzaren ebazpenetik, obra esleitzeko kontratutik eta maileguaren ituntzetik abiatuta. Kontabilizatzeko modu horrek berarekin ekarri du 2014an kontratuaren zenbatekoa erregistratzea (582.106 euro), nahiz eta urte horretan egindako obra 151.337 eurokoa izan. Aldi berean, 2014an, 2015ean kobratu diren honako hauek kontabilizatu dira: Nafarroako Gobernuaren aurreikusitako diru-laguntza (443.822 euro), kontribuzio berezi bat (31.702 euro) eta obra finantzatzeko itundutako mailegua (212.049 euro). Aurrekoaren

ondorioz, 2014an behar baino 430.769 euro gehiago kontabilizatu dira gastu gisa, eta behar baino 687.573 euro gehiago diru-sarrera gisa.

Azken batean, 2014. urtera aurreratu da 2015eko gastuen eta diru-sarreraren kontabilizatzeari. Kontabilizatzeko modu horrek kontabilitateko egoera-orri guztietan du eragina.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Eginiko lanaren norainokoari erreparatuta, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa, oro har, legez-kotasun-printzipioari jarraituz egiten da, salbu eta aurrekontuei buruzko kontabilitate-arauen betetzeari dagokionean.

IV.3. UDALAREN 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

a)Udalak onetsitako aurrekontu-likidazioen arabera.

Ondoren, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko datu ekonomiko batzuk aipatzen ditugu, bai eta haien eta 2013ko ekitaldikoaren arteko alderaketa ere. Datu horiek Osoko Bilkurak ekitaldi bakoitzerako onetsitakoetatik atera dira.

- Hona hemen hasierako eta behin betiko aurrekontua:

Diru-sarrerak	2014	2013	2014/2013 aldea (%)
Hasierako aurreikuspenak	2.199.311	1.280.459	71,7
Behin betiko aurreikuspenak	2.247.736	1.413.258	59,0
Gastuak	2014	2013	2014/2013 aldea (%)
Hasierako aurreikuspenak	2.155.087	1.278.406	68,6
Behin betiko aurreikuspenak	2.226.313	1.408.415	58,1

2013ko ekitaldiari dagokionez, Udalaren gastuen behin betiko aurrekontuak ehuneko 58,1 egin du gora eta diru-sarrerena, berriz, ehuneko 59, funtsean diru-sarrerengatik.

- Honakoak izan dira 2014ko ekitaldian aitortutako betebeharrak eta eskubideak, bai eta haien exekuzio- eta betetze-mailak ere:

	2014	2013	2014/2013 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak	1.965.578	1.366.709	43,8
Betetakoa (%)	% 88,3	% 97,0	
Aitortutako eskubideak	2.155.721	1.389.299	55,2
Gauzatzearen ehunekoa	% 95,9	% 98,3	

2014ko gastuek 1.965.578 euro egin zuten, eta behin betiko kredituen % 88 izan ziren.

b) Kontuen Ganberak egindako doikuntzen arabera.

Iritziari buruzko lerrokadan iruzkindu dugunaren eraginak direla eta, eta 2013ko ekitaldia fiskalizatu ez denez, jotzen dugu ez dela 2014ko ekitaldiko aurrekontuetako diru-sarrerak eta gastuak 2013ko ekitaldikoekin alderatzea, ez eta bi ekitaldietako finantza-egoeraren adierazleak alderatzea ere.

Udalaren 2014ko finantza-egoeraren adierazleei dagokienez, Osoko Bilkurak onetsitako kontu orokorren kontabilitate-datuetatik kalkulaturakoak eta iritziko salbuespenetan eta azpimarra-lerrokadan zerrendaturako doikuntzak sartzetik heldu direnak alderatu ditugu; hona alderaketa hori:

	2014	Doikuntzak	2014an doitua
Diru-sarrerak, guztira	2.155.721	-687.573	1.468.148
Gastuak, guztira	1.965.598	-413.054	1.552.544
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	673.212	0	673.212
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	1.421.236	0	1.421.236
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	1.192.709	0	1.192.709
Aurrezki gordina	228.527	0	228.527
Finantza-zama (3. eta 9 kapituluak)	79.814	17.810	97.624
Aurrezki garbia	148.712	-17.810	130.902
Aurrekontu-emaizta	190.123	-274.519	-84.396
Aurrekontu-emaizta doitua	190.123	132.159	47.763
Zorpetze-maila	% 5,62		% 6,87
Zorpetze-muga	% 16,08		% 16,08
Zorpetze-ahalmena	% 10,46		% 9,21
Zor bizia	886.118	40.522	926.640
Diruzaintza-gerakina, guztira	-64.494	-105.171	-169.665
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-64.494	-105.171	-169.665
Populazioa (biztanle kopurua)	1168		1168
Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak	1.846		1.257
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerak	576		576
Biztanle bakoitzeko diru-sarrera arruntak	1.217		1.217
Gastu arruntak (1. kapitulutik 5.era)	1.210.092	310	1.210.402
Biztanle bakoitzeko gastu arrunta	1.036		1.036

Doitutako adierazleei dagokienez, honako hau aipa daiteke:

- Aurrekontu-doikuntza 84.396 euro negatiboa da, nahiz eta "Kale Nagusia zolatzea" izeneko obraren finantzaketaren desbideratzea kontuan hartuta, 2014ko aurrekontu-emaizta "doitua" 47.763 euro positiboa da.
- Udalaren 2014ko aurrezki garbia positiboa da, zeren eta diru-sarrera arruntek 130.902 eurotan gainditu baitituzte funtzionamendu-gastuak eta finantza-gastuak.
- Udalaren zorpetzearen maila ehuneko 6,87koa da eta haren zorpetze-muga, berriz, ehuneko 16,1ekoa; horrenbestez, ehuneko 9,2ko zorpetze-ahalmena dauka.
- Udalaren diruzaintza-gerakina, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinarekin bat egiten duena, 169.665 euro negatiboa da. Ez da aintzat hartu inongo zenbatekorik, finantzaketa-atxikia duten gastuei eta baliabide atxikiei buruzkorik.
- Udalak, 2014ko abenduaren 31n, 51.965 euro egiten duten aurrekontu-baliagarritasunak dauzka (aitortutako pasiboak konpentsatzen dituen kontabilitate-kontu batean dagoen 92.715 euroko saldoa kenduta).
- Udalaren zor bizia 926.639 eurokoa zen 2014ko abenduaren 31n, eta epe luzeko bost maileguri dagokie; ondoren aipatzen ditugunak dira:

	Hasierako urtea	Eurotan	Muga-egunaren urtea
Maileguak birfinantzatu eta bateratzea	2005	718.448	2030
Zola ematea	2011	97.325	2031
Arau subsidiarioen aldaketan egindako inbertsioa	2004	65.377	2024
Kultur etxea	2000	4.968	2015
Epe luzeko mailegua, diruzaintza-kreditu gisa aurkeztua	2013	40.522	2015
Guztira		926.640	

Gainera, kontuan hartu beharra dago jada aipatutako mailegua, zeina hartu baitzen "Kale Nagusia zolatzeta" obra egiteko. 212.049 euroko mailegua da.

Azken batean, 2014ko ekitaldian, eragin handia dauka Kale Nagusia zolatzeko obraren guztizkoaren kontabilizatzek, nahiz eta obra horren zatirik handiena 2015ean egin den. Horrek esan nahi du ezen, kontabilitatearen ikuspuntutik, gastuen eta diru-sarreraren zati handiena aurreratu egin dela, eta horrek eragina dauka kontuak aurkezterakoan.

Udalaren egoera honela laburbil daiteke: 1,1 milioi euroko zorpetzea dauka, Kale Nagusia zolatzeko hartutako mailegua barne, eta zorpetze horrek diru-sarrera arrunten ehuneko 80 egiten du; gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina negatiboa da, eta zailtasunak daude ordainketei aurre egiteko.

Hori dela eta, Udalak finantzaketa plan bat egin beharra dauka, zeinak aukera emanen baitio diruzaintza-gerakin positiboa edukitzeko eta ordainketei atzerapenik gabe ekiteko.

IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEKO ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa (doitua)	-4.464
Doikuntzak (Aitortutako eskubideen eta aurrekontu korrante eta itxietako kobrantzen arteko aldea; 1. kapitulutik 3. kapitulura).	-37.086
Finantzatzeko ahalmena	-41.550

Los Arcosko Udalak aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa urratzen du, bai eta gastu-araua ere, zeren eta 2014ko gastu zenbakarri horren aldea, 2013koarekin konparatuta, handiagoa baita ezarritako muga baino (2013koa gehi ehuneko 1,5 da), bai aurrekontuaren mailan, bai haren exekuzioari dagokionean ere.

Finantza-iraunkortasunaren araua betetzen du, zeren eta zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 110etik behera baitago, baita 2014an itundu eta 2015ean jaso den 212.049 euroko mailegu berria kontuan hartuta ere.

Udalak ez du berankortasunaren legea betetzen: ikusten da 30 egun baino gehiagora egindako ordainketak badaudela, kopuru metatu aipagarri bat dutenak, bai eta itxitako ekitaldietako aurrekontuetatik ordaintzeko dauden saldoak ere.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Los Arcosko Udaleko osoko bilkurak onetsitako finantzen egoera-orri doitu gabeak, 2014ko ekitaldikoak, honako hauek dira:

V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordainketak (%)	Ordaintzeko daudenak
1. Langile gastuak	536.663	918	537.581	516.433	96	491.362	95	25.071
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	644.913	0	644.913	667.790	104	501.323	75	166.466
3. Finantza-gastuak	17.837	0	17.837	17.382	97	17.382	100	0
4. Transferentzia arruntak	10.600	0	10.600	8.486	80	5.867	69	2.619
5. Inbertsio errealek	882.996	70.308	953.304	693.074	73	85.596	12	607.477
6. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-pasiboak	62.078	0	62.078	62.432	101	62.432	100	0
Gastuak, guztira	2.155.087	71.226	2.226.313	1.965.598	88	1.163.964	59	801.634

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobrantsak (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zerga zuzenak	486.932	918	487.850	487.426	100	444.271	91	43.155
2. Zeharkako zergak	25.000	23.395	48.395	42.962	89	42.391	99	571
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	145.887	0	145.887	142.824	98	130.344	91	12.480
4. Transferentzia arruntak	539.815	-22.802	517.013	513.260	99	452.113	88	61.147
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	153.481	0	153.481	234.764	153	163.245	70	71.519
6. Inbertsio errealeen besterentzea	0	21.913	21.913	21.913	100	21.913	100	0
7. Kapital transferentziak	636.147	25.000	661.147	500.523	76	25.000	5	475.523
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	212.049	0	212.049	212.049	100	0	0	212.049
Diru-sarrerak, guztira	2.199.311	48.424	2.247.736	2.155.721	96	1.279.276	59	876.445

V.2. 2014ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2013	2014
Aitortutako eskubideak	1.389.299	2.155.721
(Aitortutako betebeharrak)	-1.366.699	-1.965.590
Aurrekontu-emaiza	22.600	190.123
(Finantzaketaren desbideratze positiboak)	0	0
Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doitua	22.600	190.123

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013	2014
+ Kobratzeko dauden eskubideak	144.184	948.962
Diru-sarreraren aurrekontua Aurtengo ekitaldia	85.197	876.445
Diru-sarreraren aurrekontua Itxitako ekitaldiak	126.103	151.929
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	41.930	58.853
(Nekez kobratzeko eskubideak)	-109.045	-138.266
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	462.476	1.158.135
Gastuen aurrekontua Aurtengo ekitaldia	171.782	801.634
Gastuen aurrekontua Itxitako ekitaldiak	118.638	120.466
Diru-sarreraren itzulketak	0	0
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0	0
Aurrekontuz kanpoko gastuak	172.056	236.035
+ Diruzaintzako funts likidoak	92.316	144.679
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	-225.975	-64.494
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-225.975	-64.494

V.4. EGOERA-BALANTZEA 2014ko ABENDUAREN 31n

Aktiboa

Deskribapena	2013	2014
Ibilgetua	8.062.594	8.047.843
Ibilgetu materiala	3.910.884	3.894.935
Ibilgetu ez-materiala	0	0
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsioak	2.256.252	2.257.450
Herri ondasunetan egindako inbertsioak	1.894.137	1.894.137
Finantza-ibilgetua	1.321	1.321
Zirkulatzaila	345.546	1.224.527
Zordunak	253.230	1.079.848
Finantza-kontuak	92.316	144.679
Aktiboa, guztira	8.408.140	9.272.370

Pasiboa

Deskribapena	2013	2014
Funts berekiak	7.945.664	8.115.331
Ondarea eta erreserbak	7.945.664	8.115.331
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
Epe luzeko hartzekodunak	0	0
Jesapenak	0	0
Jasotako maileguak	0	0
Epe luzeko zorrak	0	0
Epe laburreko hartzekodunak	462.476	1.157.039
Epe laburreko zorrak	462.476	1.157.039
Aplikatzeko dauden kontusailak	0	0
Pasiboa, guztira	8.408.140	9.272.370

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2014an

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2014	Deskribapena	2013	2014
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
39 Izakinen balio-galeragatiko hornidurak	0	0	39 Izakinen balio-galeragatiko hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	161.988	142.824
61. Langile-gastuak	591.238	516.433	71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	151.829	234.764
62 Gastu finantzarioak	26.526	17.382	72 Produktzioari eta inportazioari lotutako tributuak	433.985	440.624
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	72.144	73.445
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	641.043	667.790	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76. Transferentzia arruntak	547.350	513.260
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	22.004	16.319
67. Transferentzia arruntak	21.196	8.487	78 Bestelako diru-sarrerak	0	31.702
68. Kapital-transferentziak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	109.297	242.846	800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.389.300	1.452.938	Guztira	1.389.300	1.452.938

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	Zenbatekoa, 2014	Deskribapena	2013	Zenbatekoa, 2014
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)		0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	109.297	242.846
82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna)		0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)		0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	19947	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	1.744
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	89.350	244.590	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	109.297	244.590	Guztira	109.297	244.590

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate-eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioari dagokionez, ikusten da ez dela errespetatu kredituen izaera mugatzailea ez dela errespetatu zenbait kapitulutako lotura-poltsetan: langileen gastuak, ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak, transferentzia arruntak eta pasibo finantzarioak. Halere, gastuek behin betiko aurreikuspenen gainetik egiten duten kopurua ez da aipagarria, eta saihestu egin zitezkeen, kasuko aurrekontu-aldaketak gastua bete baino lehen egin izan balira.

2014ko aurrekontuaren betetze-oinarririk ez dago

Ez dago Udalaren ondasunen inbentariarik. Soilik erregistratzen dira ibilgeturen kontabilitate kontuetan egindako inbertsioak, zeinak egoera-balantzean agertzen baita: 2014ko abenduaren 31n 8.047.843 euro egiten dute.

Halaber, jabetzaren erregistroan bere izenean dauden ondasunen zerrenda badauka Udalak.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontua indarreko legeetan ezarritako epeetan onetsi behar da, Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioarako tresna gisa erabili ahal izateko.*
- *Kontrolak ezarri behar dira, baimendutako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea bete dadin ziurtatzeko modukoak.*
- *Urtero aurrekontua betetzeko oinarriak prestatu eta onestea.*
- *Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeko prozedurak zehaztu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*
- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

VI.2 UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langileei dagozkien gastuek 516.433 euro egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 96, alegia. 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 26,3 egiten dute (ehuneko 43,3 izan ziren 2013an).

Gastuak ehuneko 12,6 egin du behera 2013koaren aldean –azken hori 591.238 eurokoa izan zen–, funtsean gizarteratzearen arloko langileen kontratazioak behera egin duelako, 2014an funtzionario batek erretiroa hartu duelako, turismo bulegoan langile kontraturik ez dagoelako eta ikastetxearen garbiketa kanpoan kontratatu delako, eta, horrenbestez, gizarte aseguruiek behera egin dutelako. Gizarte aseguruengatikoa gastua hilabeteko atzerapenarekin aitortzen da (2014ko abenduaren 31n, 5.560 euro aitortu gabe daude, eta 2013ko abenduaren 31n, berriz, 7.327 euro ziren aitortu gabe zeudenak).

Aitortutako betebeharrak gisa kontabilizatu dira, nahiz eta ordaindu gabe dauden, aurreko alkatearen ordainsariak, 2012ko, 2013ko eta 2014ko urteei zegozkienak: haiek hartzeari uko egin zien hitzez.

Hona kontuak banakatuta, 2013koekin alderatuta:

	Aitortutako betebeharrak	
	2013	2014
10. Goi karguak	19.586	18.226
12 Langile funtzionarioak	142.692	128.837
13. Lan-kontratadun langileak	251.774	197.672
16. Gizarte aseguruak, montepioko kuotak	177.185	171.699
Guztira	591.238	516.433

2014ko urtarrilaren 9an, 2014rako plantilla organikoa hasiera batez onetsi zen. Plantilla organikoaren behin betiko onespena, atzemandako akats bat zuzendu ondoren, 2014ko urriaren 15ean argitaratu zen NAOn.

Honako hauek ziren 2014ko lanpostuak:

Lanpostua	Kopurua	Maila	Oharrak
Funtzionarioak:			
Ofizial administraria	1	C	2014an erretiroa hartua
Ofizial administraria	1	C	Aktiboa
Ikastetxeko etxezaina	1	D	Aktiboa
Askotariko zerbitzuetako langilea	1	D	Aktiboa
Idazkari eta kontu-hartzailea	1	A	Zerbitzu bereziak
Lan-kontratupeko langileak, aldi baterakoak			
Egoitzen garbiketa	1	E	% 75eko lanaldia
Kultur eragilea	1	B	Aktiboa
Enplegu eragilea	1	B	Aktiboa
Administrazio-langileak			
Idazkari eta kontu-hartzailea	1	A	Idazkari titularren lanpostua betetzen du, non zerbitzu eginkizunetan dagoen.

Osoko Bilkurak onetsitako ordainsari osagarriak, nominan ordaindutakoak, ez datoz bat plantilla organikoan agertzen direnekin, ez eta araudian aurreikusitakoekin ere.

Ikusi da bi langileren kasuan aplikatutako PFEZaren ehuneko txikiagoa dela Nafarroako Gobernuaren taula fiskaletan ezarritakoa baino.

2014an, iraupen jakin bateko kontratuak egiten dira, enplegua sustatzekoak (enplegu sozial babestua). Kontratu horietarako diru-laguntza ematen du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak.

Gomendatzen dugu araudi indarduna aplikatzea langileen ordainsariak eta PFEZaren atxikpenaren ehunekoak direla eta.

VI.3 GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 667.780 eurokoak izan ziren; aurreikusitako kredituaren ehuneko 103,5, hain zuzen. 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 34 egiten dute (ehuneko 47 izan ziren 2013an).

Gastuak 26.747 euroan egin du gora: ehuneko lau 2013rekin alderatuta. Honako hauek dira ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketagastuetan ageri diren kontzeptuen xehetasunak:

	2013	2014
Mantentze-lanak	99.809	116.865
Festak	93.782	108.957
0tik 3 urtera bitarteko eskolaren kudeaketa	103.186	97.707
Argiaren kontsumoa	64.128	54.230
Energia elektrikoa	48.515	44.148
Uraren kontsumoa	31.850	42.312
Oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatearen kuota	43.244	30.058
Ikastetxeko eraikinaren garbiketaren kudeaketa	0	22.471
Telefono-gastua	15.481	16.085
Kultur jarduerak	18.350	15.771
Aseguruak	12.129	11.644
Bestelako materiala, hirigintzakoa, igerilekuetakoa eta abarrekoa	9.026	11.166
Industrialderako ekarpena	8.561	9.250
Hirigintza zerbitzuak	11.404	8.851
Ikastetxeko gasolioa	15.786	8.664
Bestelako kontzeptuak.	65.792	69.609
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	641.043	667.790

Honako hauek dira alde garrantzitsuenak: ikastetxearen garbiketa zerbitzua kanpoan kontratatzetik heldu den gastu berria; mantentze gastuek; jaietako gastuek eta uraren kontsumotik heldu direnek gora egin dute; behera egin dute, berriz, 0-3 urtekoen zentroa kudeatzearen kostuek (ikasle gutxiago daude), elektrizitatearen kontsumotik heldutakoek eta oinarrizko gizarte zerbitzuetakoek (2013an derrama berezi bat dago zaharren egoitzan metatutako defizita estaltzeko). Oinarrizko gizarte zerbitzuetako mankomunitatearen gastuetan parte hartzearen kuota transferentzia arrunt gisa erregistratu beharko litzateke.

Arau orokor gisa, edozein gastu kontratatu aurretik gutxienez 3 eskaintza eskatzen dira.

Ikusi da aztertutako gastuak onetsita, kontu-hartzailetak aztertuta eta zuzen kontabilizatuta daudela.

2014ko otsailean, ikastetxearen garbiketa-zerbitzua esleitu zen, 2014ko otsailetik uztaile arteko aldirako, 11 hilabeteko (urte bateko uztailetik hurrengo urteko uztaile) 3 urtekotan berritzeko aukerarekin, publikitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez, 5 enpresari gonbita eginez –bi dira eskaintza aurkeztu dutenak–. Balorazio onena emandako eskaintzari esleitu zitzaion kontratua, nahiz eta garestiena izan (lizitazio prezioaren ehuneko 80,7). Honako hau izan zen eskaintzen balorazioa:

	Atal ekonomikoaren puntuazioa	Atal teknikoaren puntuazioa	Guztira
Esleipendunaren eskaintza	43,07	50	93,07
Esleipendun izan ez denaren eskaintza	50,00	32	82,00

Alde teknikoak honakoak hartzen ditu: giza baliabideak eta arduraldia; bitarteko materialak, lan plana eta ordutegia.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, espedientearen izapidetzea kontratu-legediari jarraituz egin dela.

Hautzaindegiaren kudeaketa (0-3 urtekoen zentroa) AVANVIDA SL sozietateari esleitu zitzaion 2008an, 10 urte bitarteko aldi baterako.

Los Arcosko eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpenen gastua, 2014an 30.058 euro egin duena, transferentzia arruntengatiko gastu gisa aurkeztu beharko litzateke.

Kapitulu honetan, jaien kontusailean, 2.800 euro ageri dira, jaietan kontratatutako behin-behineko langileen ordainsariei dagozkienak.

Eragiketen mozketan akatsak aurkitu dira. Elektrizitate- eta telefono-kontsumoetatik heldu diren gastuak fakturaren datan aitortzen dira, eta bi hilabeteri dagozkien gastuak jasotzen dira; hori dela eta, ekitaldi bakoitzaren itxieran, aurreko ekitaldiko kontsumoei dagozkien gastuak erregistratzen dira, eta ez dira ekitaldian bertan egindako gastuak aitortzen.

Gure gomendioak:

- *Gastuak sortzapen-printzipioari jarraituz aitortzea.*
- *Gastuak dagozkien kapituluan sailkatzea, haien izaerari erreparatuta.*

VI.4 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Transferentzia arruntetarako gastuak 8.486 euro egin zuten 2014an (2013an, berriz, 21.196 eurokoak izan ziren). DYAr eta musika-elkarteari egindako ekarpenak dira, eta TEDER elkartearen kuotak eta abar. 2013an 9.000 euroko gastua erregistratu zen EIOZaren itzulketak direla eta.

Los Arcosko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpenak ondasun arrunt eta zerbitzuengatik egindako gastu gisa erregistratzeari buruz –transferentzia arruntengatik gastu gisa islatu beharko ziren–, aurreko idatz-zatira esandakora jo beharra dago.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, aztertutako gastuak onetsita, kontuhartzaitzak aztertuta eta zuzen kontabilizatuta daudela.

VI.5. INBERTSIOAK

2014an inbertsioengatik aitortutako betebeharrak 693.074 eurokoak izan ziren (24.629 eurokoak 2013an). 2014ko gastu guztien ehuneko 35 egiten dute, eta haien behin betiko aurrekontuaren ehuneko 73 bete da. Hauek dira:

Obrak	2014	%, guztizkoaren gainean
Kale Nagusia zolatzea	589.002,97	85
Ikastetxeko efizientzia energetikoa hobetzea	52.481,91	8
Hilobiak erostea	18.401,63	3
Ahateen ingurunea garbitzeko lanak	16.749,59	2
Ondare higiezinaren artxiboa	11.926,98	2
El Calvarioko korralearen erreforma	4.393,45	1
Ekipamendu informatikoa erostea	117,43	0
Inbertsio errealak	693.073,96	100

2014ko ekitaldian, hiru obra-kontratu esleitu ziren.

Espedientea	Mota	Prozedura	Esleipena (BEZa barne)
Kale Nagusia zolatzea	Eraikuntza-lana	Irekia	582.106
Ikastetxeko efizientzia energetikoa hobetzeko proiektua	Eraikuntza-lana	Europako erkidegoan publizitaterik egin gabe negoziatua	42.674
Los Arcosko komentuaren eraikina partzialki eraistea	Eraikuntza-lana	Europako erkidegoan publizitaterik egin gabe negoziatua	30.069
Guztira			654.849

Egiaztatu da egoki izapidetu dela 3 kontratuen kontratazio, esleipen eta betetze espedientea, kontratuei buruzko legedian ezarritakoari jarraituz. "Los Arcosko komentuaren eraikina partzialki eraistea" lanaren zati

bat 2014an egin zen, 21.048 euroan, baina 2015ean finantzatu zen, nahiz eta gastuaren guztizkoa 2015ean egin zela aitortu.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, aipatutako kontratazio-espeditenteak barne. Honako hauek nabarmendu behar dira:

- Kale Nagusiaren zolatzeari: prozedura irekiaren bidez esleitu zen (Nafarroako Gobernuaren kontratazio atarian publikitate argitaratuta), eta sei enpresa aurkeztu ziren, Kontratazio mahaiak eskaintzak baloratu zituen, eta lizitazio prezioaren ehuneko 65 egiten zuen proposamen ekonomikoa zeukan eskaintza bat deuseztatu zuen, beharakada ausartegiarengatik, haren justifikazioa ez baitzen onartu.

Obrak, zeinak 785.367 euroko lizitazio-aurrekontua izan baitzuen, 582.106 euroan esleitu zen. Obra 2014an hasi zen eta 2014ko abenduaren 31n betetako zenbatekoa 151.337 eurokoa da, nahiz eta gastutzat aitortuta ageri den esleipendunarekin egindako kontratuaren guztizko zenbatekoa (582.106 euro).

Kale Nagusia zolatzeko obraren exekuzioa eta haren finantzaketa, 2010eko, 2014ko eta 2015eko ekitaldietan eragina duena, ondoren aipatzen duguna da:

	2010	2014	2015	Guztira	Ehunekoa
Kontrataren betetzea	0	151.337	431.787	583.124	
Proiektuaren lansariak eta zuzendaritza	30.635	6.897	24.518	62.050	
Inbertsio gastua	30.635	158.234	456.305	645.174	
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	0	0	433.219	433.219	67
Ekarpen bereziak	0	0	31.702	31.702	5
Epe luzeko banku-mailegua	0	0	180.253	180.253	28
Diru-sarrera	0	162.017	483.157	645.174	100
Obraren betetzea (%)	% 4,7	% 24,5	% 70,7		
Metatutakoa (%)	% 4,7	% 29,3	% 100,0		

Obra likidatu eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzaren zenbatekoa jasotzearekin, Udalak, 2016ko urtarrilean, eskatutako maileguaren zati bat amortizatu du jada (212.049 euro), beharrezkoa ez delakoan.

2014ko abenduaren 31ko betetako gastuaren eskatutako diru-laguntzaren (ehuneko 70) bitartezko finantzaketa-desbideratzea ez da kontuan hartu, nahiz eta finantzaketari dagokion.

- Ahateen ingurunea garbitzeko lanak: obra 2013an egin zuen lursaileko errentariak, hegaztien negozio bat kudeatzen duenak. Lursaila drainatzean datza, eurite handiek hura hartu baitzuten. 16.750 euroko faktura aurkeztu zuen, 2013ko azaroaren 13koa; haren ordainketa 2014an egin zen, errentamenduaren bidez kobratu beharreko kopurua konpentsatuz.

- Ondasun higiezinaren artxiboa: 11.927 euro dira, eta lotuta dago XX. mendearen lehenengo erdiko ohiturei eta bizimoduari buruzko ikus-entzunezko batekin lotuta dago. Ikus-entzunezko hori herriko hirugarren adineko pertsoneri egindako elkarrizketetan oinarritzen da.

- Calvario aldeko korralea berritzea: 2012an egin zuen korralea dagoen korralizako errentariak. Obraren guztizko kostua, esleipen-hartzaileak aurkeztutako fakturen arabera, 21.225 eurokoa da. Ordainketa egin zen korralizaren errentamenduari kobratu beharreko saldoen konpentsazioaren bitartez, 2012ko bigarren hiruhilekoan hasi eta 2014ko bigarren hiruhilekora arte, eta gastua konpentsazioen arabera aitortzen da, ondoren adierazi bezala:

Kompentsazioak	Eurotan	Aitortutako gastua
2012ko 2. hiruhilekotik 4. hiruhilekora izandako diru-sarrerak	6.796	2013
2013ko 1. hiruhilekotik 4. hiruhilekora izandako diru-sarrerak	10.036	2013
2014ko 1. hiruhilekotik 2. hiruhilekora izandako diru-sarrerak	4.393	2014
Guztira	21.225	

Egindako azterketa ikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, espeditenteak kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla.

Gure gomendioak:

- *Gastuak aitortzea obren exekuzioari dagokion ekitaldian, kontratistak egindako obra-ziurtagirien bidez edo gastua oinarritzen duten fakturen bitartez.*
- *Gastuak finantzatzen dituzten diru-sarrerekin lotutako finantzaketa-desbideratzeak aintzat hartzea.*

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

Honako hauek izan dira 2014an aitortutako eskubideak:

Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak
1. Zerga zuzenak	487.426
2. Zeharkako zergak	42.962
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	142.824
4. Transferentzia arruntak	513.260
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	234.764
6. Inbertsio errealeen besterentzea	21.913
7. Kapital transferentziak	500.523
8. Finantza-aktiboak	0
9. Finantza-pasiboak	212.049
Diru-sarrerak, guztira	2.155.721

2014ko diru-sarrerak 2.155.721 eurokoak izan ziren. Honakoak dira diru-sarrerak osatzen dituzten kapitulu nagusiak: Transferentzia arruntaren ehuneko 24; kapital-transferentzien ehuneko 23; zuzeneko zergen ehuneko 23; finantza-pasiboaren ehuneko 10 (inbertsio errealek finantzatzeko mailegua); ondare bidezko diru-sarrearen eta herri-lurren aprobetxamenduen ehuneko 11; tasa eta prezio publikoen ehuneko zazpi; zeharkako zergen ehuneko bi, eta inbertsio errealeen besterentzetik heldutako diru-sarrearen ehuneko bat.

VI.6.1 Tributu bidezko diru-sarrerak

Udalak aplikatutako tasak, 2013ko azaroaren 7ko osoko bilkurak onetsiak, honako hauek dira:

Tributu figura	Udala	2/95 Foru Legea
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,80	0,10 - 0,50
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	0,33	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,34	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,7	2,1 - 3,6 bitartean
Zerga-tasa	12	8 - 20 bitartean
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4	2 - 5

Zuzeneko zergen bidezko diru-sarrerak 487.426 euro egiten dute (488.962 euro, 2013an), eta diru-sarrearen guztizkoaren ehuneko 22,6 dira (ehuneko 43,3 2013an). Diru-sarrera horiek, handitik txikira, heldu dira hiri-lurren kontribuziotik, ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergatik, JEZetik, herri-lurren kontribuziotik eta hiri-lurren plusbalioaren gaineko zergatik. Diru-sarrearen kontzeptu bakoitzean aurreko ekitaldikoaren antzeko zenbatekoak aurkitzen dira.

Zeharkako zergen bitarteko diru-sarrera guztiak EIOZarekin lotuta daude. Kapitulu honetako diru-sarrerak 42.962 euro egiten dute, eta guztizkoaren ehuneko bi egiten dute.

Diru-sarrearen kontusail nagusia Los Arcosko abiadura-zirkuituko zenbait tokiren drainatzea hobetzeko egindako obra batekin. Obra hori Sociedad Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio sozietateak egin zuen, 58.847 euroko hasierako zenbatekoa ordainduta. Ondoren, 30.568 euro kendu ziren, obraren kostua eta EIOZaren zerga ordaindu beharreko kontzeptuak aztertu ondoren.

Tasa eta prezio publikoak 142.824 euro egiten dute (161.968 euro, 2013an), eta diru-sarrearen guztizkoaren ehuneko 6,6 dira (ehuneko 11,7 2013an). Nagusiki heldu dira lurraren eta hegalaren okupazio

tasetatik, 0-3 urteko zentrotik, kirol instalazioen erabileratik eta Udalak lagatako lokaletan egindako gas-tuen itzulketatik (aterpea, jubilatuen kluba, negutegiak eta eskualdeko oinarrizko gizarte zerbitzua).

2013koen aldean behera egin dute, kirol instalazioen eta 0-3 urtekoen zentroaren erabilerarengatik tasa gutxiago jaso baitira.

2014ko ekitaldiari buruzko berrikuspena positiboa izan da, nahiz eta honako hauek nabarmendu behar diren:

Oraindik ere kobratzeko daude 2014ko eta aurreko ekitaldietako hiri-lurren kontribuzioarekin, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zirkulazio zergarekin eta JEZarekin lotutako zenbateko batzuk. Udalak agentzia exekutiboaren zerbitzuak badauzka zorrak kobratu, likidatu eta biltzeko kudeaketaz arduratzeko. Geserlocalekin du kontratatua.

Hegal publikoaren telefonia-erabilerarengatik tasa. Diru-sarrerak Nafarroako Gobernuarekiko banaketa-kontu batean jasotzen dira, hiru hilez behin.

Hegal publikoaren elektrizitate-erabilerarengatik tasa: Diselcide sozietatearekin (antzinako Electra Berrueza SA) zerikusia duten diru-sarrerak hiru hilez behin jasotzen dira Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik.

Gure gomendioak:

- *Kobratzeke dauden zenbatekoen jarraipen egitea.*
- *Lurra eta hegala okupatzegatiko tasak kontabilizatzeko prozedurak finkatu eta ezartzea, diru-sarrerak kasuko ekitaldiari egozteko.*
- *Balorazio-ponentzia berraztertzea eta landa-lurren kontribuzioa doitzeari lurraren gaineko kontribuzioari buruzko araudi indardunaren arabera.*

VI.6.2 Jasotako transferentzia arruntak

Diru-sarrera hauek 513.260 euro egin zuten 2014an (2013an, berriz, 547.350 eurokoak izan ziren).

	2013	2014
Toki ogasunen funtsa	338.421	338.421
1. zikloko haur eskolen kudeaketarako diru-laguntza	43.450	50.022
Gizareratze errenta jasotzen duten langileak kontratatatzeko Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntza	55.962	31.902
Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza	17.534	0
Hobekuntzetarako proiektuak egiteko diru-laguntza	33.381	26.006
Udal funtzionarioen montepioaren finantzaketa	21.809	22.742
Zinegotzien lansarietarako diru-laguntza	18.554	19.073
Eskola-kontzentrazioko herriburua izateagatiko diru-laguntza	6.734	12.708
Bake epaitegiarako diru-laguntza	6.206	6.207
Bestelakoak	5.299	6.179
Transferentzia arruntak	547.350	513.260

Aldea zor zaio, nagusiki, 2013an jaso izanari enpleguarekin lotutako diru-laguntza handiagoak (106.877 euro; 2014an, berriz, 57.908 euro jaso dira).

Langileak kontratatatzeko gastua finantzatzeko jaso diren transferentzia arruntak kontratazioa egin eta hurrengo ekitaldian aitortzen dira diru-sarrera gisa.

VI.6.3. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-ahoretamenduak

Diru-sarrera horiek 234.764 euro egin zuten 2014an, eta 151.829 euro 2013an.

	2013	2014
La Raicillako pinuen baso-enkantea	1.150	75.300
AVD lurzatiak eta eta larreak	60.827	65.730
Enkanteko lurzatiak eta eta larreak	40.731	40.088
Herri-lurretako belarrak eta artegiak	13.189	17.112
Lurren lagapena hegaztien ustiatagirako	16.084	16.084
Tabernen eta negutegiaren alokairuak	15.310	15.907
Usategiak eta barrutia	4.500	4.500
Bestelakoak	38	43
Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-ahoretamenduak	151.829	234.764

Aldea heldu da, nagusiki, zuhaitzen salmentaren bidezko diru-sarrek gora egin izatetik.

Baso-lotearen esleipena enkante publiko bidez egin zen, bai eta herri-lurretako lurzatiaren errentamenduaren zati bat ere.

Tabernen eta hegaztien ustiatagirako lurraren errentamenduak aurreko urteetan esleitu ziren.

VI.6.4. Inbertsio errealeen besterentzea

Los Arcosko Santa Eulalia kalean hiri-lurren orube bat saltzen da. Enkante bidez esleitu zen, baldintza orri itxiek, eta esleipen-hartzaileak baino ez ziren aurkeztu. Lizitazio prezioa 21.713 eurokoa zen, eta 21.913 euroko prezioan esleitu zen, gehi ehuneko 10eko BEZa.

VI.6.5 Jasotako kapital-transferentziak

2014an, 500.523 euroko diru-sarrerak aitortu dira; hona haien xehetasunak:

	Eurotan
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, Kale Nagusia zolatzeko	443.822
Nafarroako Gobernuaren kontribuzio berezia, Kale Nagusia zolatzeko	31.702
LEADER PDRN-Efizientzia Energetikoa 4. ardatzeko proiekturako diru-laguntza	25.000
Kapital-transferentziak	500.523

Kale Nagusia zolatzeko obra finantzatzeko, diru-laguntza bat eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari, eta hark, azkenean, 2015ean eman zuen. 451.445 euroko diru-laguntza bat da, eta obraren kostuaren ehuneko 5eko kontribuzio berezia ezartzen da. Bi diru-sarrera horiek halakotzat aitortu beharko ziren 2015ean.

Bestalde, 2014an, Europako funtsetatik 25.000 euroko diru-laguntza bat jaso da, ikastetxeko efizientzia energetikoa hobetzeko inbertsioa finantzatzeko (leioak berritzea).

Gomendatzen dugu kapital-transferentziak kontabilizatzeko prozedurak zehaztu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideei jarraituz.

VI.6.6. Finantza-pasiboak

2014an, epe luzeko mailegu bat, 212.049 eurokoa, hartu da Nafarroako Rural Kutxarekin. Muga-eguna 15 urtera du, seihilekoko amortizazioekin, eta interes aldakorra sorten du (euriborra+ehuneko 1,45). Kale Nagusia zolatzeko obra ordaintzeko hartu da. Mailegua 2015eko urtarrilean gauzatu zen.

Mailegua itundu zen "Kale Nagusia zolatzeko" obra finantzatzeko beharrezkotzat aurreikusitako zentzatekoari begira, 212.049 euro, nahiz eta obra esleitu zen aurrekontuan jasotakotik behera dagoen zentzateko batean; izan ere, behar zen mailegua 162.027 eurokoa zen.

VI.7. AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

Aurrekontuz kanpoko zordunen saldoak honako hauek dira 2014ko abenduaren 31n:

Aurrekontuz kanpoko zordunak

Deskribapena	Amaierako saldoa
Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	39.920
BEZa	8.353
Industrialdearen kontserbaziorako entitatearen gastuak	7.379
Bikoiztutako ordainketak edo gehiegizko ordainketak	3.181
Ogasun Publikoaren likidazioak, BEZa	16
Betebeharren itzulketak, egiteko daudenak	3
Guztira	58.853

Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk: 24.797 euro egiten ditu, gutxi gorabehera, zeinak erregistratutako eragiketei baitagozkie, bai eta aurrekontuz kanpoko beste hartzekodun batzuen saldoak ere. Gainerakoa, funtsean, langileentzako aurrerakinengatik egindako ordainketak dira, 13.437 euro egiten dutenak, eta langileak ikastaroetara joateko gastuak, 900 eurokoak.

Industrialdearen kontserbaziorako entitatearen kontura egindako gastuak: elektrizitatea eta uraren nahiz hiri-hondakinen tasak, nagusiki. 2015ean konpentsatzen dira, Udalak entitate horri 2014an ordaindu beharreko ekarpenaren zenbatekoarekin.

Ordainketa bikoiztuak edo gehiegizkoak: zenbateko hori bera zordunen saldo gisa ageri da, kobrantza bikoiztu edo gehiegizkoengatik.

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen saldoak honako hauek dira 2014ko abenduaren 31n:

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak

Deskribapena	Amaierako saldoa
Hartutako fidantzak eta gordailuak	140.744
Diruzaintzako kreditua	40.522
PFEZaren atxikipenak	7.656
Montepiorako atxikipena	7.114
Montepioaren atzerapenak	3.606
Bikoiztutako ordainketak edo gehiegizko ordainketak	6.615
Gizarte Segurantzaren atxikipenak	2.699
Ogasun Publikoaren likidazioak, BEZa	1.260
Osasun Laguntzarako Erabilera Bereziko Zerbitzuaren (ASUE) atxikipenak	464
BEZa	29
Industrialdearen kontserbaziorako entitatearen gastuak	1.096
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	24.230
Guztira	236.035

Aurrekontuz kanpoko beste hartzekodun batzuk eta kobrantza bikoiztu edo gehiegizkoak: saldo horiek, halaber, aurrekontuz kanpoko zordunen saldo gisa ageri dira.

Hartutako fidantzak eta gordailuak

Jatorri urtea	Fidantzaren zenbatekoa	Diru-sarrera efektiboa	Banku-abala	Guztira
2006	Kaleak zolatzeko proiektuaren fidantza	1.318		1.318
2008	Belarren enkanterako fidantza	100		100
2009	Urbanizaziorako fidantza	150		150
2009	Usategietarako fidantza	60		60
2010	Urbanizaziorako abala	0	3.640	3.640
2010	Urbanizaziorako abala	0	3.640	3.640
2010	Igerilekuetarako fidantza	150		150
2011	Igerilekuetarako fidantza	150		150
2011	Kafetegirako eta dendako obretarako fidantza	1.000		1.000
2012	ACA 9 urbanizazio-gastuetarako gordailua	31.630		31.630
2012	Odron ibaiaren hiri-tartearen mantentzea eta lehengoratzea	0	1.660	1.660
2012	ACA 9ko hondakineterako fidantza	3.624		3.624
2012	Hondakineterako fidantza	1.000		1.000
2013	Hondakinen birziklatzerako fidantza	1.000		1.000
2013	Hondakineterako fidantza	1.000		1.000
2014	Ikastetxeen garbiketarako zerbitzuak	0	445	446
2014	Baso-enkanterako fidantza – Pinuak	1.449		1.449
2014	La Raicilla baso-aprobetxamendua	0	67.468	67.469
2014	Los Arcosko Santa María ikastetxe publikorako leihoak	1.763		1.763
2014	Jubilatuen tabernaren esleipena	250		250
2014	Kale Nagusia zolatzeko obrak. S 1 / 2	0	19.243	19.243
Guztira		44.645	96.098	140.742

2014an jasotako banku-abalekin lotutako fidantzak, guztira 87.157 euro egiten dutenak, funts likidoen atal bat den "Formalizazioa" kontuaren saldo gisa aitortu dira, eta 2014ko abenduaren 31ko saldoa 92.715 eurokoa da.

2012an eta lehenago jatorria duten fidantzetatik, ez dakigu zein dauden indarrean 2014ko abenduaren 31n.

Diruzaintzako kreditua: 2013an, epe luzeko mailegu bat itundu zen, 70.000 eurokoa, La Caixarekin. 48 hilekotan amortizatzea zen. Ez zen finantza-pasiboarengatiko aurrekontu-diru-sarrera gisa aitortu, baizik eta aurrekontuz kanpoko diruzaintzako kreditu gisa. 2014an, 17.500 euro amortizatu ziren (finantza-pasiboarengatiko aurrekontuko gastu gisa aitortu beharko ziren); sortutako interesak 3.752 eurokoak izan ziren (3.442 euroko gastuak jaso ziren). Mailegu honek, zeinak 2014ko abenduaren 31n 40.522 euroko saldoa baitauka, 2015eko maiatzaren 22an kitatu da aurrez, ordaintzeko zegoen saldoa ordainduta –33.541 euro–.

BEZarengatiko, PFEZarengatiko eta gizarte aseguruengatiko saldoak administrazio publikoei ordaindu beharreko kopuruei dagozkie, bai eta kobratzeko eta ordaintzeko dauden fakturen BEZari ere.

Montepioaren atxikipenengatiko saldoak zor zaizkie kontzeptu horrengatiko aurrekontu-gastu gisa aitortu izanari gizarte estalduren araubide horri atxikitako langile baten –2014an erretiratu zen– kargurako kotizazioaren zatia, zeina nominan atxikitzen baitzitzaion. Horrenbestez, saldo hori, bai eta Osasun Laguntzarako Erabilera Bereziko Zerbitzuaren (ASUE) atxikipenena ere ez da exijitzekoa den pasibo bat, eta 2014ko ekitaldiko langile gastuak 3.574 euro handiagoak dira.

Gomendatzen dugu aurrekontuz kanpoko zordunen eta hartzekodunen saldoen kontzeptuak eta zenbatekoak aztertzea, haien kontabilizatzearen arloko balizko akatsak atzeman eta zuzentzeko; akats horiek honako hauei dagozkie: bi erregistroetan ageri diren kontusailak, aurrekontu-eragiketak (diruzaintzako kreditua), exijitzekoak ez diren eskubideak eta betebeharrak eta abar.

VI.8 DIRUZAINNTZA

Diruzaintzako-egoerari buruz aipatzen denaren arabera, 2014ko abenduaren 31n 144.679 euroko amaierako kontabilitate-izakina zegoen; horietatik, 92.715 euro nagusiki banku-abalei zegozkien, jasotako fidantzen kontzeptuan, eta "Formalizazioa" kontuaren saldo gisa ageri dira.

Banku-berdinkatzeak: kontabilitate-saldoen eta banku-laburpenen arabera saldoen arteko berdinkatzeak ez dituzte zehazten bi saldo horien arteko aldea azaltzen duten kontusail zehatzak. Azaldu gabeko aldea 3.889 eurokoa da (saldo handiagoa, banku-laburpenen arabera).

Kutzako saldoa: 2013ko eta 2014ko abenduaren 31n kutxan 585 euroko kontabilitate-saldoa ageri den arren, bi data horietako efektiboa deuseza da.

Gomendatzen dugu funts likidoen ez dagozkien saldoak identifikatzea, bai eta kontabilitate-saldoen eta banku-saldoen eta kutxako efektiboaren arteko berdinkatze-kontusailak ere, eta behar diren zuzenketak egitea.

VI.9 ITXITAKO AURREKONTUAK

2013ko eta aurreko urteetako gastuak, 2014ko abenduaren 31n ordaintzeko daudenak, 120.466 eurokoak dira. 2014an aldaketa batzuk erregistratu dira, zorra baliogabetzeen bidez gutxitzen dutenak: 5.443 eurokoak dira aldaketa horiek.

Hona ordaintzeko dauden gastuak, jatorri urtearen arabera:

Urtea	Eurotan
2008	22.693
2009	1.557
2010	10.496
2011	39.441
2012	14.939
2013	31.340
Guztira	120.466

Ez dira bereizi Espainiako Gobernuak otsailaren 24ko 4/2012 Errege Lege Dekretua dela-eta ordaindutako zenbatekoak –arau horrek toki-administrazioko entitateen hornitzaileei ordaintzeko finantzaketa-mekanismo bat ezartzeko informazio-betebeharrak eta beharrezko prozedurak ezartzen ditu–: 41.300 euro egiten dute eta Espainiako Gobernuarekiko zor gisa aurkeztu behar dira.

Hona xehetasun batzuk, saldo-kontzeptuen arabera emanak:

Deskribapena / Kontusaila	Kopurua
NAVAMEDIOS - IOGENIO defiende Los Arcos 2012	2.832
Vianako Udala-Sierra Leonarako traktorera ekarpena, 2010	6.000
SGAE, 2013ko herriko jaiak	1.654
HARUTE - Ikastetxearen garbiketa orokorra, 2008ko ikasturtearen hasierakoa	8.383
ANIMSA 646. faktura, espedienteen kudeaketakoa, 2008	7.660
Elkarte eta kolektiboentzako diru-laguntzak, 2008	1.480
Elkarte eta kolektiboentzako diru-laguntzak, 2010	1.900
Antso Handia kalean lurzatia erostea, 2008	5.170
2013ko jaietako gastuak (Miguelenak)	3.484
Jurramendiko Mankomunitatea	2.253
Honaino, guztira	40.817
Espainiako Gobernuak; FPP funtseko hartzekodunentzako ordainketak.	41.300
Alkatetzaren ordainsariak (exijitu gabekoak)	18.045
2015ean egindako ordainketak	17.106
Bestelako saldoak	3.199
Guztira	120.467

2013ko eta aurreko ekitaldietako diru-sarrerak, 2014ko abenduaren 31n kobratzeko daudenak, 151.929 eurokoak dira; horietatik, 27.328 euro 2013ko diru-sarrerei dagozkie. 2014an,, 55.671 euro kobratu dira 2013ko diru-sarrera gisa, eta soilik 1.501 euro aurreko ekitaldietako diru-sarreretatik.

Hona hemen kontzeptuen arabera laburpena:

	Eurotan
Zirkulazioaren gaineko zerga	31.299
JEZ	25.765
Hiri-lurren kontribuzioa	24.612
Odron ibaiaren tartea lehengoratzeko diru-laguntza	13.824
Jubilatuen tabernako gastuen itzulketa	10.727
Hiltegiko gastuen itzulketa	5.719
Beste diru-laguntza batzuk	5.477
Hiltegiaren alokairua	5.440
Toki ogasunen funtsa	4.598
Herri-lurretako belarrak eta artegiak	4.582
Plusbalioak	2.848
Turismoa zabaltzeko diru-laguntza	2.831
Bestelako diru-sarrerak	2.740
Mankomunitaterako diru-laguntza, 2009	2.123
Jubilatuen tabernaren esleipena	2.045
Igerilekuetako tabernaren esleipena	1.800
Landa-lurren kontribuzioa	1.520
Arterako eta kulturarako diru-laguntza	1.481
Irekitze-lizentzia	820
EIOZ	441
Lurraren eta hegalaren okupazioa, eta telefonia	432
Salmenta ibiltaria, postuak	235
Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako diru-laguntza	176
Hirigintzaren arloko izapidetzeak	150
Landa-finken salmenta	134
Bide publikoaren okupazioa	108
Guztira	151.929

Hona urte bakoitzean jatorriaren arabera kobratzeko dauden saldoen laburpena

Jatorri urtea	Eurotan
2003	4.333
2004	7.789
2005	2.728
2006	2.287
2007	4.133
2008	9.642
2009	18.202
2010	16.009
2011	25.810
2012	33.669
2013	27.328
Guztira	151.929

Zorren kudeaketarako, likidaziorako eta diru-bilketarako zerbitzua Geserlocalek kudeatzen du, nahiz eta aurreko ekitaldietatik kopuru handiak dauden kobratzeko.

Gomendatzen dugu itxitako ekitaldietatik heldutako kobratzeko eta ordaintzeko dauden kontzeptu eta zenbatekoen azterketa bat egitea, kobratzeko eskubideekin edo ordaintzeko betebeharrekin bat ez datozen kontusailak identifikatzeko, bai eta egoki islatzea saldo horiek zein zordunekikoak edo hartze-kodunekikoak diren.

VI.10 UDALAREN EGOERAREN BALANTZEA ETA EMAITZEN KONTUA

Ibilgetua, 2014ko abenduaren 31n, 8.048.843 euroan dago baloratuta. Printzipioz epe luzeko inbertsio errealen eta aktiboen altekin eta bajekin gaurkotu beharko litzateke.

Ez dago ondasunen inbentario gaurkoturik; horrek muga bat dakarkio fiskalizazio-lanaren noraino-koari, bai ibilgetuari dagokionez, bai funts berekiei dagokienez ere, 2014ko eta 2013ko abenduaren 31n.

Ez dago jasota zein den kapitaleko diru-sarrerengatiko saldoa. Kontusail hori ez da gaurkotzen aitor-tutako kapitaleko transferentziekin (500.523 euro 2014an).

2014ko abenduaren 31ko balantzean, 7.379 ageri dira diru-bilketa zaileko eskubide gisa; 2014ko ekitaldiko diruzaintza-gerakinean, berriz, 138.266 euro ageri dira (109.046 euro 2013ko abenduaren 31n), zeinak heldu baitira 2013ko ekitaldiko saldoei ehuneko 50a eta aurreko urteetakoei ehuneko 100a aplikatzen.

Diruzaintzako saldoak bat datoz diruzaintzaren egoeraren saldoekin, biek ala biek "Formalizazioa" kontuaren 92.715 euroko saldoa hartzen duten arren; kontu horretan, funts likidoen mugimendurik ez dakarten eragiketak erregistratu dira (abalak eta abar).

Balantzean ez da jasotzen finantza-zorra (zor bizia), zeina 886.118 eurokoa baita 2014ko abenduaren 31n (948.550 euro 2013ko abenduaren 31n).

Epe luzeko zorren 2014ko abenduaren 31ko saldoa 1.096 euroan desberdina da honako hauen baturatik: ekitaldi korronteko zorren saldoak, itxitako ekitaldietako zorren saldoak eta 2014ko ekitaldiko diruzaintza-gerakinaren aurrekontuz kanpoko gastuak. Aldea industrialdearen kontserbazio-entitatearen gastu galeraren saldoarekin bat dator, zeina aurrekontuz kanpoko hartzekodunen kontua baita. Ibilgetua eta kapitaleko diru-laguntzak.

Banku-zorrek lotutako eragiketak eta kapital-transferentzietakoak ondare-kontuaren aldaketa gisa kontabilizatzen dira; haren 2014ko mugimenduak ezin izan ditugu identifikatu gure azterketan.

Emaizten kontuan islatutako diru-sarrerak eta gastuak egoki berdinkatu dira aurrekontuko likidazio-koekin.

Gomendatzen dugu egoeraren balantzearen kontusailletako kontabilitate-saldoak berrikusi eta, kasua bada, erregularizatzea.

VI.11. GORABEHERAK

Udaleko idazkariak informatu du honako hau dela 2014ko abenduaren 31n irekita dagoen prozedura judicial bakarra:

128/2012 betearazpen prozedura, Iruñeko administrazioarekiko auzien 3. epaitegiak izapidetua (39/2009 errekurtsu administratiboa, prozedura arruntekoa).

Demandatuak: Los Arcosko Zirkuituaren Konpentsazio Batzarra.

Epai judicialak eskatuta, Los Arcosko Udalak –Los Arcosko Abiadura Zirkuituaren Konpentsazio Batzarreko kidea da– administrazio jardule moduan, agentzia exekutiboari eskatu zion premiamenduzko espediente bat ireki zezan sozietate baten aurka, zertarako-eta merkataritza-sozietate horrek ordain dezan Konpentsazio Batzarrarekiko daukan zorra (162.974 euro, printzipala eta errekariguak batzetik heldu direnak).

Gaur arte, 3.120 euro kobratu dira, kreditu bat bahitu ondoren, eta Konpentsazio Batzarrari eskualdatu zaizkio.

Hau da, Udalak bitartekari bat balitz bezala jarduten du, eta bahitzen duena Konpentsazio Batzarrari eskualdatzen dio.

VI.12 HIRIGINTZA

LOS ARCOSKO UDAL PLANA

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren 2006ko uztailaren 20ko 252 Foru Aginduaren bitartez, behin betiko onespena eman zitzaion Los Arcosko udal planari, eta eskatu zen plan horren testu bategina aurkezteko. Testu hori 2006ko abuztuaren 25ean eman zitzaion kontseilariari. Gero, irailaren 14ko 1453/2006 Ebazpenaren bitartez, udal planaren behin betiko onespena NAOn argitaratzea xedatu zen.

Udal plan hori indarrean dago 2014ko abenduaren 31n.

Gero, udal planean zenbait aldaketa egin dira. Horietatik azkena 42. artikuluko 10. idatz-zatiaren aldaketa xehearen espedientearen hasierako onspena izan da. Los Arcosko udal planeko hirigintza arauetako lurzoru ez-urbanizagarrietako eraikin motei eta abeltzaintza intentsiboko instalazioei buruzko baldintza partikularrei buruzkoa da eta 2015eko ekainaren 18ko 117 NAOn argitaratu da. Aldaketa horri 2015eko iraileko osoko bilkuran eman zitzaion behin betiko onspena, eta NAOn argitaratzeko zain dago.

Los Arcosko udal plan orokorrak honako dokumentazio hau dauka: oroitidazkia, hirigintza-arauak eta eranskina, ordenantzak, katalogoa, izapidetze prozesuko parte-hartze publikoa eta erakunde publikoen txostenak, behin-behineko onspenaren erabakia eta lurraldearen informazio-planoak eta hirigintza-antolamendukoak.

HIRIGINTZA HITZARMENAK

Osoko bilkuraren akten 2014ko ekitaldiko azterketan ez da ikusi Udalak inongo hirigintza-hitzarmenik onetsi duenik.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Honako honen bitartez, Kontuen Ganberak igorritako Los Arcosko Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena dela eta, Los Arcosko Udalak erakunde horri jakinarazi nahi dizkio, txostenari buruzko gogoeta gisa sar ditzan, nolako neurriak jarri dituen abian aipatutako fiskalizazio-txosteneko auditoria lanen eta bertan emandako gomendioen ondorioz:

- Udaleko langile guztiei idatziz eskatu zaie egoera pertsonalen deklarazio-eredua igor dezaten, PFEZaren atxikipen ehunekoak aplikatzeari begira.

- Geserlocal agentzia exekutiboari eskatu zaio itxitako ekitaldietako kobratzeko daudenei buruzko azterlana eta proposamena egin ditzan, kobratzen ezinezkotzat jotzen diren eskubideen huts egindako kontusailei buruzko proposamena egiteko.

- Katastroaren mantentze-lanetarako Estudio 5 enpresarekiko elkarriketak hasi dira, balorazio ponentzia berrikusteko lanak hasteko. Udalean eginen den hurrengo osoko bilkurarako proposamen bat badago, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuari jakinaraztekoa Los Arcosko Udalak balorazio ponentzia berrikusteko lanak hasteko interesa duela.

- 2015eko ekitaldi ekonomikoan eragina duten kontabilitate-aldaketak hasi dira, behar diren alderdi guztietan, Espainiako Gobernuak ordaindutako zenbatekoen saldoak zein zordunekikoak diren jasotzeko, Hornitzaileei ordaintzeari buruzko otsailaren 24ko 4/2012 Errege Lege Dekretua aplikatuz, Espainiako Gobernu hartzekoduna denean.

Los Arcosen, 2016ko otsailaren 26an

Alkate-udalburua

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiogu Los Arcosko Udalari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas